

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2013ko martxoaren 7a. IX. urtea. 2.557. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Zizurkilgo Huyck Wangner enpresak erregulazio espedientea atzera bota du

Multinazionalak lantegia ez dela «bideragarria» berretsi du, eta beste erregulazio prozesu bat proposatzeko asmoa du, «langileen ordezkariekin akordio batera iristeko»

Langileek zuhurtziaz jaso dute espedientearen erretiratzearen erabakia; ELA sindikatutik azaldu dutenez, enpresak ez die erabakiaren arrazoien berri zuzenik eman ◦6

## Maila handiko txirrindulariak Aiztondo Klasikoan eta Insalus Sarian

Afizionatu mailako txirrindularitarik onena ikusteko aukera izango da asteburuan; igandean izango da jokoan Aiztondo Klasikoa, eta larunbatean Lizartzako Insalus Saria ◦4

**Ruben Saralegi** Aizkolaria

## «Nire erritmoa hartu eta etxean egindako lan berdina egitera joango naiz»

Ruben Saralegi aizkolaria leitzarrak Xabier Mindegiaren aurka neurtuko ditu indarrak igandean jokatuiko duten apustuan; 3.000 euro jarri ditu kirolari bakoitzak mahai gainean ◦7

## Alegiako gizonetako bat hil da auto batek harrapatuta

Herenengun iluntzean izan zen istripua Alegiako GI-2133 errepidean, Altzoko bidegurutzaren inguruan; ezbeharrean harrapatutako adinekoa ezin izan zuten suspertu ◦5

## Ibarrako Udalak gizarte zerbitzuak indartzeko apustua egin du

4,3 milioi euroko aurrekontua onartu berri dute Ibarren; aurreikusita zutena baino egoera ekonomiko «hobe» izan arren, zuhur jokatu beharra dagoela esan dute ◦5



→ **Mendi Film jaialdia, Tolosan.** Mendiari eskainitako nazioarteko zinemaren lanik onenetakoak hirugarrenez izango dira ikusgai, Tolosako Leidor aretoan. Mendi Film jaialdiko lan arrakastatsuenak eskainiko dituzte datorren astean, eta sarre-  
rak dagoeneko eskuragarri daude Leidorreko lehiatilan. ◦3



Jaione Rodriguez, Juanmari Urruzola eta Unai Balda, Lizardi elkartearen egindako aurkezpenean. ITZEA URKIZU

# Tolosaldeko milaka lagunek euskara elkarri emango diote hilaren 14an

Korrika 18 aurkeztu dute Tolosan, eta agintariei euskarari bultzada bat emateko eskatu diete

**Itzea Urkizu** Tolosa

Andoainean hasiko da martxoaren 14an, bi urtez behin euskararen alde Euskal Herri osoa zeharkatzen duen Korrika jaia. Tolosaldean milaka *euskalakari* izaten ditu AEKko euskaltegiek antolatutako egitasmoak, eta aurten, lehen egunean bertan helduko diote lekukoari, eskualdeko herritarrek.

Lizardi kultur elkartearen egoitzan aurkeztu dute hemezortzigarren Korrika, Tolosaldeari begira, eta agerraldian, Korrikako batzorde nazionalako kide den Juanmari Urruzola, Korrikako koordinatzaile Unai Balda eta AEKko irakasle den Jaione Rodriguez izan dira.

Unai Baldak, besteak beste, Korrika Andoainean abiarazi aurretik, jaia girotzeko burutzen duten Korrika kulturala gogora ekarri du: «Dagoeneko hainbat jarduera burutu dira, bai maila nazionalan, eta baita eskualde mailan ere». Horrela, antolatutako mus txapelketan, esaterako, Tolosaldeko finala Ikaztegiaren burutu zuten, duela bi aste; Andoainean bertan izango da, Euskal Herri mailako finala, datorren martxoaren 16an.

Honez gain, Loatzoko musika eskolak emanaldi berezia eskainiko du astelehenean, Adunan, eta korrika txikia ere egingo dute, Tolosaldeko ia herri guztietan bezala. Alegian, berriz, lasterketa pasa ondoren, zahagi ardoa izango da. Aipatzekoa da, larunbat honetan eskuragarri izango dela Korrika 18ren materiala, Tolosako Trianguloan.

**Lekukoaren lehen pausoekin** Korrika 18ren lehen egunean zeharkatuko ditu, lasterketak, To-

losaldeko herriak; lekukoaren lehen pausoa izango dira, beraz, bertakoak.

Jaione Rodriguezek azaldu bezala, «duela bi urtekoaren antzeko ibilbidea jarraituko du, aurten ere, Korrikak». Honenbestez, 17:10 inguruan sartuko dira eus-



**Euskarak kohesiorako tresna izan behar du, euskal herritar guztion artean komunikatzeko»**

«Erakunde, agintari eta herritarrek euskara bultzatzeko esfortzu berezia egin behar dute»

**JUANMARI URRUZOLA**  
Korrikako batzorde nazionalako kidea

kararen aldeko aldarriak Adunan, eta Villabonako kaleetara 17:33ak aldera iritsiko dira. Jarraian, irurarrek helduko diote lekukoari, 17:46 inguruan, 17:59ean anoetarrei eskuz esku pasatzeko.

Tolosan 18:10 aldera pasako da, lehen aldiz, lasterketa, eta Ibarra aldera abiatuko dira *euskalaka-*

*riak*, 18:43ak inguruan. Ibarra itzulia egin eta gero, Tolosara itzuliko da berriz AEKko furgone-ta, eta korrikalariek Alegia alde-rako bidea hartuko dute. Azkenik, Ikaztegieta izango da Korrikak zeharkatuko duen eskualdeko azken herria.

### Dakienak ez dakienari

Aspaldiesan zuen Joxean Artzek: «Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako, baizik». Baieztapen honen munitateak, elkarrekin, tabernak eta antzekoak garbitzeko eskaintza ere egiten da. Era berean, haurrak zein adineko pertsonak zaintzeko zerbitzua ere eskuragarri dugu. Autoarekin. Interesatuak, deitu 699 58 91 29 edo 653 72 92 47 telefono zenbakietara.

### ↓ Korrika Tolosaldean

**MARTXOAK 14, OSTEGUNA**

**Aduna.** 17:09

**Villabona.** 17:33

**Irura.** 17:46

**Anoeta.** 17:59

**Tolosa.** 18:11

**Ibarra.** 18:43

**Tolosa.** 19:00

**Alegia.** 19:07

**Ikaztegieta.** 19:52

tengo Korrikako antolatzaileek, eta «dakienak ez dakienari erakutsi behar diola» azpimarratu du Juanmari Urruzolak.

Horrela, beraz, *Eman euskara elkarri* lelopean, euskara erabilzeko eta zabaltzeko deia egingo dute. «Euskarak kohesiorako tresna izan behar duela uste dugu, euskal herritar guztioi gure artean komunikatzeko lanabesa. Horregatik, aurtengo Korrikako irudian Euskal Herriko aniztasuna nahiz hainbat errealitate ezberdin ere irudikatu nahi izan ditugu: lantegia, Nafarroa, ikurriña, irakaskuntza, musika, kirola, ... Aniztasunak elkarrekin errespetua dakar, eta hizkuntza aniztasunari begira jarri nahi izan dugu ideia hori», azaldu du Urruzolak.

Hizkuntza aniztasunarekin lotuta, euskara UNESCOren hizkuntza gutxituen zerrendan ageri dela gogora ekarri du Juanmari Urruzolak; zerrenda horretan agertzen den arren, ordea, «bultzada berezi bat behar du, ez bai-kaude arriskutik urrun». Honegatik guztiagatik, agintariei eta erakundeek berezia egin nahi izan diete AEKk eta Korrikak: «Euskara bultzatzeko eta babes-teko esfortzu berezia egin behar dute, eta herritarrek ere parte hartu behar dute, ezinbestean, horretan».



Milaka euskaltzalek korri egin zuten, Tolosaldean, 2011n ere. ASIERIMAZ

### ↓ Iragarki laburrak

#### LANESKAERAK

**Garbiketa eta zaintza zerbitzua.** Orduka lan egiteko, esperientzia handiko garbiketa eta zaintza zerbitzua eskaintzen dugu. Etxeko garbiketetan, plan-tzan, sukaldean eta abarretan lan egiteko prest. Bestalde, ko-

munitateak, elkarrekin, tabernak eta antzekoak garbitzeko eskaintza ere egiten da. Era berean, haurrak zein adineko pertsonak zaintzeko zerbitzua ere eskuragarri dugu. Autoarekin. Interesatuak, deitu 699 58 91 29 edo 653 72 92 47 telefono zenbakietara.

**Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldun batek bere burua eskaintzen du. Autoa ere badauka, gainera, lanera joan ahal izateko. Interesa duen edonork, dei egin dezala zenbaki hauetako batera: 943 69 68 82 nahiz 606 52 19 92.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Mendiari eskainitako zinerik onena, Leidorren ikusgai

Mendi Film jaialdiko lan arrakastatsuenekin osatutako bira hirugarrenez izango da Tolosan

**ITZEA URKIZU** Tolosa

Mendiari eskainitako nazioarteko zinemaren lanik onenetakoak ikusgai izango dira, Tolosako Leidor aretoa, Mendi Tour egitasmoari esker; datorren astearte eta asteazkenean izango dira saioak, 19:30etik aurrera.

Mendi Film Festival zine jaialdia da egitasmo honen oinarria. Duela bost urte ekin zioten antolatzeari, eta lau urtetan Gasteizen ospatu izan dute; azken jaialdia, ordea, Bilbon izan zen, 2012ko abenduan. Hain zuzen ere, zine jaialdian sarituriko lanak nahiz arrakasta handiena izandakoak biltzen dituzte, Mendi Tour birarako, eta Euskal Herriko eta kanpoko hirietan proiektatzen dituzte.

Ibai Iriarte Tolosako alkateak, «horrelako jaialdi bat Tolosan izatea gozamen» dela azaldu du egi-

tasmoaren aurkezpenean: «Tolosan mendirako zaletasun handia izan da beti, eta urtetik urtera Mendi Tour babesten jarraitu nahi dugu, Tolosa mendizaletasunaren plaza bilakatu dadin». Honekin batera, martxoaren 12an eta 13an Leidor aretoa betetzea «erronka» izango dela nabarmendu du.

Tolosako eta inguruko mendizaleek hirugarren urtez gozatu ahal izango dute zine jaialdi honek emandako lanik onenez, eta Tolosa Gasako ordezkari Alberto Gonzalez, bat etorri da Iriarterekin: «Munduko zinemarik onena Tolosan bertan ikusteko aukera eskaintzen du honek, eta hori ikaragarria da».

Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan egindako aurkezpen ekitaldira ere bertaratu da, Mendi Film Festivaleko zuzendari Javi Baraiazarra. Besteak beste, Mendi Tour bira egiterakoan Tolosa aukeratu izanaren arrazoiak azaldu ditu: «Batetik, Tolosa mendizaletasun handia dago, eta horrekin batera, herrian kultur mugimendu handia izaten da beti. Tolosa hiri bizia da, egonezin eta jakinmin handikoa».



Alberto Gonzalez, Ibai Iriarte eta Javi Baraiazarra, Bidaiarien Txokoan egindako aurkezpenean. ITZEA URKIZU

Baraiazarrak eskerrak eman nahi izan dizkie udalari nahiz Tolosa Gasari, «egoera ekonomikoa honetan, Mendi Tour-en aldeko apustua egitearren», eta Leidorren eskainiko dituzte filmen kalitate nabarmendu du: «Ja denak sarituak izan ziren Bilbon, eta saririk jaso ez zutenek beste jaialdi batzuetan izan dute errekonozimendua. Oso zaila egiten zaigu filmak aukeratzeko, eta ikusle gehiagorengana iristeko, askotarikoa lanak hautatzen saiatzen gara».

Mendiari eskainitako zine jaialdi honetako lan aukeratuak ikus-

teko aukera datorren astean izango da, beraz, Tolosan. 19:30ean hasiko dira astearteko eta asteazkeneko saioak, eta bi ordu inguruz luzatuko dira. Sarrerak eskuragarri daude jada, Leidorreko leihatilan; egun bakoitzeko txartela 5 euro ordaindu beharko da.

**Mendia Alex Txikonen arabera**  
Aurtengo Mendi Tour-eko gonbidatu berezia izango da Alex Txikon. Iaz ezin izan zuen etorri, baina hilaren 13an, *Bajo Cero* lanaren inguruan gogoeta egiteko bertaratu da alpinista profesionala, Tolosara.

## ↓ Mendi Tour 2013

### MARTXOAK 12, ASTEARTEA

■ 19:30-21:40. *Of souls + Water: The Nomad, Unicorn Shami, Non Così Lontano, Erhard Loretan: respier! / odeur du ciel* eta *Honnold 3.0.*

### MARTXOAK 13, ASTEAZKENA

■ 19:30-21:50. *Of souls + Water: The Warrior, Silbergeier, Origins: Obe and Ashima, Autana* eta *Bajo cero.*

## Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, udal bulegoak itxita izango dira

**I. Urkizu** Tolosa

Emakumeen Nazioarteko Eguna jai egun gisa ageri da Tolosako Udaleko lan egutegian, eta hori dela eta, udal bulegoak itxita izango dira bihar, egun osoan zehar.

Espainiako legediak ezarritako zenbait jai egun ospatu beharrean, beste jai egun batzuk goratzea erabaki zuen udalak, 2011n, hain zuzen ere, «izaera baikorra eta arrerakoia» duten jai egunak ospatzeko. Horrela beraz, Konstituzio eguna, Pilar birjinararen eguna nahiz Gernikako Estatutuaren urteurrena ospatu ordez, honako hauek ospatzen ditu Tolosako udalak, azken urteotan: Euskalaren eguna, Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Ostiral Mehea.

## Irudia



## LASKORAIN IKASTOLA LILATOIAN

Tolosako Laskorain Ikastolako 40 lagunek parte hartu zuten, pasa den igandean, Donostiako Lilatoian. Ikastolako arduradunek azaldu dutenez, «jarduerara honetan Laskorainekin bat egiten duten irakasle, ikasle, ikasle ohi eta gurasoen parte-

hartzea gero eta handiagoa da». Aipatzekoa da, gainera, Kilometroetako *Ahora!* izenarekin atara zirela korri egitera. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, aste osoan zehar hainbat egitasmo burutuko dituzte Laskorain ikastolan. HITZA

## Ikurrinaren aldeko kotxe karabana izango da bihar

**I. Urkizu** Tolosa

*Nazioa gara, geurea ikurriña!* Inposaketarik ez! lelopean, Espainiako bandera eskualdeko udal-tan jartzeko aginduaren aurkako manifestazioa izango da, larunbatean, Tolosan. Mobilizazio hau girotzeko, kotxe karabana antolatu dute, biharko.

18:30ean abiatuko dira Usabal sagardotegitik, eta Tolosako nahiz Ibarroko kaleetan barrena joango dira. Kotxe bakoitzak bere ikurrina eraman beharko du.

**KEY-LAN**  
Sarrailgintza

Nalarrua etorb. 13 behean - TOLOSA  
Mag.: 670 41 79 22  
Tel./Fax: 943 65 03 13



Imanol Arruti. HITZA

## Imanol Arruti izendatu dute Behar Zana pilota eskolako ordezkari

Antolaketa izan diren aldaketan ondorioz, ikastaroetan izen ematea berriro ireki du Villabonako elkarteak

**Mikel Iraola** Amasa-Villabona

Behar Zana Pilota Elkarteak aukeratu berri du aurrerantzean pilota eskolako ordezkari lanak egingo dituen pertsona. Igandean egindako batzar orokorraren ondoren, Imanol Arruti izendatu zuten eskolako arduradun.

35 urteko zizurkildarra, gazte gaztetatik pilotaren munduari lotua izan da Arruti, eta gaur egun, eskuz aritzen da trinketeetan. Iaz, gainera, Gipuzkoako Eskuz Bina-kako Trinkete Txapelketaren finala jokatzera iritsi zen. Lanari, ilusio eta gogo handiz ekingo dio la baieztatu du Arrutik.

### Izen ematea, irekita

Antolaketa izan diren aldaketen ondorioz, pilota eskolako izen ematea ireki du berriro elkarteak. Eskuko, palako, joko garbiko edo erreboteko modalitateetako ikastaroak eskaintzen ditu. Interesatuak, Villabonako pilotalekura agertu beharko dute astelehen edo asteartean, 17:30ak eta 19:00ak bitartean, edota 647 781 410 zenbakira deitu.

# Afizionatu mailako txirrindularitzarik onena izango da asteburuan



Ibai Salas, Aiztondo Klasikoaren 12. etapa garailea, Alkizako helmugan. Aurten ere bera da faborito nagusia. KARLOS

Lizartzako XXV. Insalus Saria jokatu da larunbatean, eta Aiztondo Klasikoaren X. edizioa, igandean

**Mikel Iraola**

Afizionatu mailako txirrindularien bilgune izango dira Tolosaldeko errepideak asteburu honetan, bi proba jokatuko baitira. Larunbatean, Lizartzako XXV. Insalus Saria izango da jokoan, eta igandean, X. Aiztondo Klasikoaren txanda izango da.

Azken hau, amateur mailako egutegian erreferente bilakatu da hamar urteren ondoren. Errepideko txirrindularitzako Espainiako Kopako bigarren proba puntuagarria izango da Aiztondokoa. Ibilbide gogor eta bizia izango du lasterketak, nahiz eta, ohiturari jarraiki, aurten ere irteera eta amaiera puntuak aldatu dituz-

## ↓ Datuak

### X. AIZTONDO KLASIKOA

- **Eguna.** Igandea, martxoak 10.
- **Irteera.** Asteasu, 10:00etan.
- **Helmuga.** Zizurkil, 12:45ak inguru.
- **Distantzia.** 143,5 km.
- **Mendateak.** Aduna (lau aldiz) eta Alkiza.

### XXV. INSALUS SARIA

- **Eguna.** Larunbata, hilak 9.
- **Irteera.** Lizartza, 15:30ean.
- **Helmuga.** Lizartza, 18:00ak inguru.
- **Distantzia.** 107 km.
- **Mendateak.** Altzo (hiru aldiz) eta Leaburu.

ten. Asteasutik abiatuko da tropela igandeko goizeko hamarretan, eta 13:45ak Zizurkilgo helmugara iritsi bitartean, 143,5 kilometro osatu beharko dituzte txirrindulariek. Tartean, Aduna lau aldiz eta Alkizako mendateak igo beharko dituzte. Puntu pilaketarako baliagarriak izango dira bost igoerak, baita Asteasu eta Villabonan kokatu diren tarteko helmugak ere.

Guztira, 28 taldek hartuko dute parte Aiztondo Klasikoaren hamargarren edizioan. Caja Ruraleko Ibai Salas, joan zen urteko irabazlea, da aurtengo ediziorako faborito nagusia. Bizkaitarrekin batera, Naturgas taldeko Loic Chetout baionarra eta Imanol Estevez arabarra, Daniel Sanchez espainiarra (Bicicletas Rodri-

guez), edo txapelketako sailkapen nagusiko liderra, Vadim Zhuravlev errusiarrak (Lokomotiv), dira garaipena lortzeko gainontzeko hautagaiak.

Larunbatean, berriz, 25. aldiz jokatu da Insalus Saria Lizartzan. Otsabio kirol elkarteak antolatutako probak 110 txirrindulari inguru bilduko ditu. Ibilbidean ez da aldaketarik izan: Lizartzan hasiko da 15:30ean, eta leku berean amaitu 18:00ak inguruan. Guztira 107 kilometro egin beharko dituzte. Etaparen hasiera lau izango da. Irten bezain laster, Ordiziaraino joango dira, eta itzuleran, Altzora igoko dira lehen aldiz. Birritan errepikatuko dute igoera, eta tartean Leaburu-ara ere igo behar dute.

### Arazaok errepideetan

Ibilbideak finkatuta egon arren, azken orduko aldaketak izan daitezke jakinarazi du federazioak, atzo N-1 errepidean, Legorreta parean gertatutako luizaren ondorioz. Datozen egunotan hartuko du erabakia Ertzaintzak, eta horren arabera, probetako ibilbideak aldatuko dira.

### Ospakizunik gabe

Bestalde, probak jokatu diren arren, krisiak eragin zuzena izan du aurten bi lasterketetan. Ondorioz, hamargarren eta 25. urteurrenak ospatzeko, ezin izan dute ezer berezirik antolatu.

«Egoera dagoen moduan, nahikoa daukagu proba aurrera ateratzearikin», adierazi du Joxe Ramon Aiertza Aiztondo Elkarte kideak. Asteasuarraren arabera,

«geroz eta zailagoa da enpresa pribatuen eskutik dirua jasotzea», eta esfortzu handia egin behar izan dute gastuak murrizteko. «Badakigu enpresak ere ez daudela egoera onean eta horregatik laguntza eman diguten horiei eskerrak eman nahi dizkiegu».

Egoera okerragoa da, ordea, Lizartzan inguruan. Lehengo urtean makina bat arazo izan zituzten aurrekontura iristeko, baina azken unean babesle berriak topatu



Egoera dagoen moduan, nahikoa daukagu proba aurrera ateratzearikin; geroz eta zailagoa da»

**JOXE RAMON AIERTZA**  
Aiztondo Elkarte kidea

«Aurten bai ala bai egin behar genuen proba; datoren urtekoa aldiz, kolokan dago»

**XABIER BALERDI**  
Otsabio Kirol Elkarte kidea

eta proba antolatzea lortu zuten. Aurten, zailtasunak mantendu dira, baina 25. urteurrena zela ikusita, esfortzu handiarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. «Bai ala bai egin beharkeoa zen» dio Xabier Balerdi Otsabio Kirol Elkarte kideak. Hasiera batean, Euskadiko Txapelketarekin bat egin nahi zuten, baina ez dute lortu. Probaren etorkizunaren inguruan ezkor ageri da Balerdi, izan ere, egoerak hobera egin ezan, hurrengo urteko edizioa kolokan dagoela dio.

**GAURKO ESKAINTZA**

**Mauka**  
berria

**Kirol osasuna eta fisioterapia**

Juan XXIII. 6, komertzio gunea  
Donostia (GIPUZKOA)  
Tel.: 943-39 25 86 / 696-92 41 54  
info@iralbizufisioterapia.com  
www.iralbizufisioterapia.com

Prezioa  
**23€**

**www.mauka.eu** **berria**  
taldea

## Alegian herritar bat hil da autoak harrapatuta

Ertzaintzaren arabera, ezbeharrak GI-2133 errepidean gertatu zen, Altxoko bidegurutzetan, herenegun iluntzean

**A. Imaz** Alegia

Ertzaintzak herenegun iluntzean jakitera eman zuenaren arabera, Alegian adineko gizona zen, heren auto batek harrapatuta. Ez-

beharrak 20:30ak inguruan gertatu zela azaldu dute Ertzaintzatik: «Istripua GI-2133 errepidean gertatu zen, Altxoko bidegurutzetik gertu». Anbulantzia bat ezbeharrak gertatu zen lekura joan zen, autoak harrapatu zuen gizona ardatzera, baina saiatu arren, erizainek ezin izan zuten suspertu.

Alegiatik azaldu zuten, gizona herri bertakoa zen, 70 urte ingurukoa. Ezbeharrak Becker enpresaren inguruan gertatu zela ere esan zuten.

## Hondakinen gaia aztertuko du Sortuk martxoaren 12an

Amasa-Villabonako hondakinen kudeaketa «egokiagoa» abian jartzeko lan dinamika azalduko dute

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Hondakinik onena, sortzen ez dena lelopean Amasa-Villabonako Sortuk hitzaldia antolatuko du martxoaren 12an, asteartean. Gurea zineko erakusketa gelan 19:30ean elkartuko dira. Aurrera begirako plangintza azalduko

dute bertan, hau da, «Amasa-Villabonako hondakinen kudeaketa egokiagoa» izango da astearteko bilera deialdia» izango da astearteko, Sortutik azaldu dutenez.

Hondakin «gehiegi» sortzen dela, eta zabortegiak «leporaino» daudela salatu dute Amasa-Villabonako Sortutik. Europako Komunitateak hondakinen legea zorrotz egin duela diote Sortuko kideek, eta zorrotz horren helburua «hondakinak murriztea, eta ahalik eta zabor gehien berrerabili eta birziklatzea» direla azaldu dute.

## Eskola txikiek Usabalen dute hurrengo zita

Tolosaldeko Eskola Txikien XI. Kirol Topaketak egingo dituzte martxoaren 15ean, Tolosan

**A. Imaz**

Tolosaldeko Eskola Txikien XI. Kirol Topaketak Tolosako Usabalen ospatuko dira martxoaren 15ean. Besteak beste, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altxo, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Ikaztegieta, Lizartza eta Zizurkilgo haurrak bertan elkartuko dira, jolas giroan kirola

egiteko. Hirugarren mailatik seigarrenera bitarteko ikasleen arteko harremanak bultzatu nahi dira ekimen honekin.

09:45ean harrera ekitaldia egingo dute, bost minutu beranduago jolasekin hasteko. 10:45ean hamaitaketa txanda izango da, eta indarrak berriro ondoren, 11:10ean, berriro jolasei ekingo diete. Kirol topaketak 12:05ean amaituko direla azaldu dute antolatzaileek, hau da, Gipuzkoako Eskola Txikietako arduradunek. 12:30ean, itzulerako autobusa abian jarriko da eta ikasle guztiak euren eskoletara itzuliko dira goiz eder bat lagun berriekin igarostean.

## Ibarrako Udalaren egoera ekonomikoa aurreikusi zutena baino «hobea» da

Gipuzkoako Foru Aldundira diru gutxiago itzuli beharko du udalak, eta espero baino gehiago jaso du

**Iñigo Terradillos** Ibarra

2013 urterako aurrekontua onartu berri du Ibarrako Udalak, EH Bilduren aldeko botoekin, eta EAJ eta PSE alderdien abstentzioarekin. Urte «zaila» aurreikusten zuten udal ordezkariak, hainbat faktorek bultzatuta, Foru Aldundiari itzuli behar zitzaion dirua kasu, erabat baldintzatutako aurrekontuak izatera behartuta egon zitezkeelako. Azkenean, baina, itzuli beharreko kopurua txikiagoa izanik, eta jaso beharreko zertxobait handiagoa, egoera «lasaiagoa» utzi du udala. Hori bai, udal ordezkariak adierazi duten moduan, «zuhur jokatu dugu, erantzukizunez, eta horrela jokatzeko jarraitu behar dugu».

Jexux Peñagarikano Ibarrako alkateak azaldu du moduan, «eusten eta gastuak ahalik eta gehien murrizten» ahalegindu dira, baldintza kezkagarriak baitzetozen: «gazteei zuzendutako etxebizitzaren obrak batetik, izan ere, normalean aurrekontutik gora egin ohi dute horrelako lanek; Aldundiari itzuli beharreko 187.000 euro zela aurreikusi genuen; Rafael Poza arkitektoari ordaindu beharreko; edota BEZaren ingoerara».

Azkenean, baina, Peñagarikanoaren esanetan, «zenbakiak ez dira hain gaizki joan». Espero baino 90.000 euro gehiago jaso dute «etxebizitzaren obrak zertxobait aurreztu delako edo udaleko langileen aparteko ordainsaria ordaindu gabe geratu delako». Gipuzkoako Foru Aldundiari, berriro, 80.000 euro itzuli behar izan zaizkio, eta ez 187.000, beraz, azke-



Jexux Peñagarikano Ibarrako alkatea aurrekontuak azaltzen. I.T.

nean, aurreikusi gabe zegoen 150.000 euro inguru utzi ahal izan dute gordeta.

### «Programan oinarritua»

4.318.893 euroko aurrekontua du udalak 2013 urterako. Ibarrako alkateak adierazitakoaren arabera, «pasa den urteko gastuetan oinarrituz» osatu dituzte. «Horrez gain, gure programari jarraitzea ere izan da irizpidea; horregatik, aurrekontuetan arau berritzaileen azterketa jaso dugu, zero zaborrera begirako hondakinen kudeaketa, Berdintasun sailetik bultzatuko den plana, kale hezitzaileen programa edota gizarte laguntzen aldeko apustua».

Aurtengo aurrekontuak alde nabaria du iazkoarekin, batez ere, inbertsioen atalean, eta hori, batik batik, gazteei zuzenduriko etxebizitzaren proiektuagatik gertatu zen, 780.000 euroko kostua baitzuen. Orotara, 330.000 euro bideratuko ditu udalak inbertsioetara. Hondakinen gaikako bilketak (78.000 euro) hartuko du pisu gehien, etxebizitza dotazionalen sukaldeekin (74.000 euro) batera. Arau berritzaileen azterketarako 53.500 euro bideratuko dituz-

### ↓ Aurrekontuak

Orokorra	4.318.893 euro
Euskara	57.800 euro
Gizarte zerbitzuak	395.000 euro
Hirigintza	55.000 euro
Ingurumenak	481.000 euro
Kirola	285.400 euro
Kultura eta gazteria	208.000 euro
Obrak eta zerbitzuak	469.000 euro

te eta ikastolako patioarako, berriro, 35.000 euro.

Ibarrako Udala 2,883ko zorpe-tze mailarekin geratuko da, 2012an zorraren 103.080 ordaindu ostean.

### Parte hartzea

Aurrekontuak batzar orokorrean onartuak izan aurretik bilera batean aurkeztu zituen iragan aste-aren EH Bilduk. Herritarrei iritzia emateko aukera zabaldua zen bilaren helburua. Alde horretatik, eta bilerara herritar gutxi azaldu zela ikusita, autokritika egin zuten udal ordezkariak, eta aurrerantzean ahalik eta herritar gehienek parte hartzea dela euren borondatea eta nahia adierazi zuten.



Gernikako Arbola 1 behe • TOLUSA • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com

# Huyck Wangner enpresak «erregulazio prozesu» berri bat abiatzeko asmoa du

Atzera bota du hasierako enplegu erregulazio espedientea; langileek «zuhurtziaz» hartu dute erabakia

**Iñigo Terradillos** Zizurkil

Huyck Wangner enpresak urtarilaren amaieran aurkeztu zuen Zizurkilgo lantegian 75 langile kaleratzeko enplegu erregulazio espedientea erretiratu du. Enpresak lantegia ez dela «bideragarria» adierazi du, eta beste erregulazio prozesu bat martxan jartzeko asmoa agertu, «langileekin akordioa lortu, eta aurreikusitako enplegu murrizketen eraginak ahalik eta gehien leuntzeko».

Iragan otsailaren 25en bukatu zen dosieraren gainean negoziatzeko epea. Orotara bost bilera izan dituzte. Multinazionalak prentsara bidalitako ohar bidez azaldu duenez, bilera horietako batzuetan Lan Ordezkaritzako ordezkariak izan dira, eta Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko kideekin ere bildu dira, «Zizurkilgo lantegiaren bideragarritasuna aztertzeke helburuarekin». Multinazionalak adierazi duenaren



Huyck Wangner enpresako langileek bi manifestazio egin dituzte, azkenekoa aurreko larunbatean. I. TERRADILLOS

arabera, euren jarrera «erabat malgua» izan da prozesu osoan, «inolak biderik baztertu gabe». Halaber, langileak berriro kokatzeko programa eskaini zuela azaldu du zuzendaritzak, eta kaleratutako langileak lehentasuna izango zutela konpainiaren beste lantegietan esan zitzaizela. Kaleratzeei dagokienez, egungo lege-

diak arautzen duena baino «bal-dintza hobeak» eskaini zituela ere azpimarratu dute.

Izan dituzten negoziazioetan ez direla inongo akordioetara iritsi, eta erakundeek ere ez dutela lantegietako borondaterik agertu onartu du Huyck Wangner enpresak. Ondorioz, egungo egoeran ekoizpenarekin jarraitzea ez dela

«bideragarria, galerak izango litzukeela eta langileen egoeraren ziurgabetasuna areagotu baino ez lukeela egingo» adierazi du. Horrek guztiak «etorkizuneko langileen kalte ordainak ordaindu ezin izana» ere ekarriko lukeela nabarmendu du.

Mikel Zabaleta ELA sindikatu-ko ordezkariak azaldu duenaren

arabera, «ezuste handia» hartu dute langileek, ez baitzuten albis-tea espero. «Gaur kaleratze gutti-nak jasotzea espero genuen, eta gure hurrengo pausoa Auzitegi Gorenera jotzea zen, salaketa jartzera». Langileak, beraz, «gustura» daudela adierazi du Zabaletak. Hori bai, enplegu erregulazio espedientea atzera bota izanaren arrazoiak ez dizkiete eman langileei, beraz, «zuhurtziaz» hartu dute berria. «Zizurkilgo industria proiektuarekin jarraitzeko konpromisoa agertzen badute gu erekin egongo gara, baina, aldez, hau guztia denbora irabazteko estrategia baino izan ez bada, eta aurrera begira guztia errepikatzeke asmoa badute, aurrez aurre izango gaituzte, orain arte bezala», adierazi dute.

Espedientea erretiratzeko arrazoiak ezagutzen ez dituzten arren, Zabaletak argi du enpresaren asmoak ezagutu zituztenetik hasitako mobilizazioek eragin handia izan dutela: «Nire ustez enpresak ez zuen erantzun hori espero, ez zuen horrelako presio-rik espero, gauzak errazago egin ahalko zituztela uste zuten».

Urtarrilean aurkeztu zuen enpresak ia lantalde osoa kaleratzeko espedientea: 81 langileetatik 75. Jarduerari eustea ez dela bideragarria esan zuen. Otsailaren amaieran bukatu zen negoziatzeko epea, eta akordioerik ez zuten lortu. Multinazionalak ez zuela negoziatzeko borondaterik agertu salatu du ELAK.

# Gatazkan dauden langileei babesa azaldu eta manifestaziora deitu dute

Martxoaren 9an, 17:30ean Bilbon eta 18:00etan Iruñean enpleguaren alde irtengo dira

**Asier Imaz**

Hego Euskal Herrian gatazkan dauden hainbat enpresa komitek bi manifestazio antolatu dituzte larunbatean, martxoaren 9an, *Gaurko borroka, biharko enplegua* lelopean. Mobilizazio bat Iruñean izango da, eta bestea Bilbon. Eskualdeko langileak eta herritar-rrak Bilboko manifestaziora deitu dituzte. Mobilizazioa 17:30ean irtengo da Jesusen Bihotzatik.

Hain justu, manifestazioaren helburuetako bat langileen arte-

ko elkartasuna da, eta atzoko prentsurrekoan hori irudikatu zuten eskualdeko langileek: «Enpresa komite desberdinetako kideek antolatutako manifestazioarekin bat egin nahi izan dugu gaur hemen gaudenok. Bakoi-tzak bere errealitatekin, enpre-tan burutzen ari garen borroka ez direlako, borroka indibidualak izan behar». Egoeraren gordina kontuan hartuta, elkarrekin joa-tearen garrantzia behin eta berriz azpimarratu dute: «Gero eta enpresa gehiagotan ari gara langile-ak egoera antzekoak pairatzen eta beharrezkoak ikusten dugu denok batera, bakoitza bere gatazka partikularretik, gatazka hauek guztiak kalera batera ateratzea».

Prensaurrekoa eskaini zuten langileen esanetan, «egoera jasan-zina da», eta «erasoak etenga-beak sektore guztietan». Prakti-kan enplegu politika eraginkor-rik ez dela egiten esan dute,

«nahiz eta gobernuak etengabe enpleguaz hitz egiten aritzen di-ren».

Grezian aplikatutako neurriak aplikatzen ari direla, eta kalera-tzeak mehatxu bezala erabiltzea ere salatu dute. Prensaurrekoan agertu diren langileekin batera, Tolosaldeko enpresa komite ugari-rik egin dute Bilboko manifesta-ziorako deialdia.

**Leitzatik Iruñera**

Leitzako ezker abertzaleak Iruñe-ko manifestaziora joateko deial-dia luzatu du. Nafarroako hiribu-ruko mobilizazioa 18:00etan hasi-ko da, larunbatean. Nafarroan dagoeneko 234.520 langabetu daudela salatu dute ezker aber-tzaletik, «eta horietatik soilik %55,5ak jasotzen du langabezia saria, saria deitu badaiteke». Ego-era ilun honi aurre egiteko herri-tarrak manifestaziora deitu di-tuzte.



Tolosaldeko hainbat enpresetako langilek prentsurrekoa eskaini zuten atzo, Bilbora joateko eskatuz. E. MAIZ

## ↓ Atxikimenduak

### ENPRESA KOMITEAK

■ Munksjö Paper, Artes Graficas Laga, Antalis Envelopes Manufacturing, Cicarsa, Cartonajes Limousin, Gamesa Asteasu, In-saluz urak, Sode SA, Guibe Tai-lerak, Borobil, Zuhaizki, Lantier, Cadinox, Inoximek, Man Truck Bus Iberia Norte, eta SAM.

### NORBANAKOAK

■ **Tolosaldean txitako lante-gietako langileak:** Emusi, Caldereria Urto, Gorostidi eta Amarotzeko pa-pelera.  
■ **Beste langileak:** SAM, Casa Ezeiza, Unipapel, Obeki eta Fudike.

## Ruben Saralegi ◊ Aizkolaria

Lehenengo aldiz jokatu du apustu bat Ruben Salaregi aizkolaria leitzarrak. Xabier Mindegiaren aurka izango da, igandean, horrek azaroan erronka jo ondoren.

# «Urduritasunak ez dio berari niri bezainbeste eragingo»

**Imanol Garcia Landa** Leitza

Lehenengo aldiz jokatu du apustua Ruben Saralegi (Leitza, 1990) aizkolaria. Xabier Mindegi izango du aurrean, igandean, Doneztebeko (Nafarroa) eskoletako pilotalekuan, 12:30ean hasiko den norgehiagokan. Aizkoran denbora luzez ariko dira; zehazki, 10 kanaerdiko eta bi oinbiko ebaki beharko dituzte. Aizkolaria bakoitzak 3.000 euro jarriko ditu, eta apustua bertatik bertara ikusi nahi duenak 30 euro ordaindu behar ditu.

**Nola sortu zen apustua egitearena?** Nafarroako Bigarren Mailako Txapelketa jokatu genuen azaroan, Donezteben. Nik txapela eramane nuen, berak bigarren egin zuen, eta nik 48 segundo atera nizekion. Dirudienez, ez zen gustura gelditu; adar bat ere pasa omen zuen, eta irudituz zitzaien niri irabazi ahal zidala. Aste horretan bertan apustua bota zidan.

**Zer lan egin zenuten final horretan?** Orduan bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat ebaki genituen; apusturako duguna baino dezente gutxiago izan zen.

**Apusturako du zuen adinako lana egin duzu aurretik?**

Ez; behin ere plazan egin dudan lanik luzeena izango da. 40 minutu inguruko proba aterako da. Denbora horren azpitik moztu nahiko nituzke nik.

**Nola doaz luzera horretako lana prestatzeko entrenamenduak?**

Normalean baino entrenamendu luzeagoak egin ditut, gero proban ondo aritzeko. Ordu bateko eta 50 minutuko saioak eta egiten ari naiz aizkorarekin.

**Gogorra izaten ari da prestaketa?**

Entrenatzea gogorra da, ordu bat aizkoran aritzea. Gero, lan fisikoa ere egiten ari naiz. Gogorra da, baina aizkora gustatzen zaigu eta entrenatu beharra dago.

**Zer lan fisiko egiten duzu aizkorarekin aritzeaz gain?**

Mendian ordu pare batez ibili, edo korrika aritu. Gimnasioa tarteka egiten dugu; ez dakigu ona den ala ez, asko eginez gero aizkorarako gastatu egiten zaitu eta.

**Apusturako iraupen handia izatea garrantzitsua izango da, ezta?**

Iraupena eta indarra oso ondo tartekatuta behar diren kirola da aizkora. Indarrarekin bakarrik ezin da ezer egin, eta iraupen handia baduzu, baina indarrik ez, alferrik da. Nahiko zaila da, beraz, ondo aritzeko biak zenbateraino



HITZA

entrenatu behar diren jakitea. Gero, nola ebakitzen den oso garrantzitsua izaten da. Gaizki moztu hasten bazara, indar eta denbora asko galtzen duzu, eta buroarentzako ere oso txarra da.

**Zein izango da apustuaren gakoa?**

Nire ustez bakoitza bere erritmoan hasiko gara, aurkariari kasurik egin gabe. Zuk badakizu etxean lan hori nola egin dezakezun, eta orduan zure erritmoa hartu eta etxean egindako lan berdina egitera joan behar duzu. Aurkariari begira hasten bazara eta berari jarraitu nahian, erritmotik ateratzen zara eta gero agian ezinean aritzen zara. Nik uste dut bakoitzak bere lana egingo duela. Gero, egurrak erdibana eramango ditugu: nik zortzi kanaerdiko eramango ditut eta berak bi oinbikoak eta bi kanaerdiko. Egurra samurragoa edo gogorragoa eramane daiteke. Ea berak nolako eramaten duen.

**Nolako egur mota komeni zaizu?**

Etxean denetik moztu dut, eta ho-

rreala egin beharra dago, besteak ez dakizulako nolako egurra eramango duen. Niri ez dakit zer komeniko zaidan; nik nahiko normalak eramango ditut.

**Bazenuen gogoa apustu bat egiteko?**

Aizkoran beti izan dira apustuak. Txapelketekin alderatuta, gauza garrantzitsuagoa izaten da. Ez nuen asmo handirik apusturik jokatzeke, baina bera etorri zenez apustua egitera, eta nahiko ongi nengoenez une horretan, irabazteko aukerak ikusi nituen eta apustua onartu nuen.

**Mindegiak 29 urte ditu. Eskarmetua bere alde izango du.**

Bere hirugarren apustua da, eta urduritasunak ez dio niri bezainbeste eragingo. Nik ez dakit urduritasunak zenbateraino eragingo didan, lehenengo aldia baita; ea urduritasunak ez didan pasada txarrik jokatzen.

**Txapelketetako finaletan ere aritu zara. Hor ere urduritasuna izango da, ezta?**

Bai, txapelketetan eta finaletan beti izaten da urduritasuna. Norberak badaki etxean zer lan egiten duen, norberak badaki nola dagoen, baina beti izaten da zaila ongi egon arren plazan zerbait ongi ez ateratzearena. Saiatu behar dena da ahal den urduritasun gutxiena izaten eta ahal den hotzera jokatzen.

**Prestaketak zeinekin egiten ari zara?**

Daniel Vicente osabarekin eta Eneko anaiarekin ari naiz prestatzen. Apustura bi laguntzailerekin joan ahal da. Osabak ebakiekin lagunduko dit eta anaiak aizkorak ematen. Entrenamenduak batera egiten ari gara.

**Zer giro dago Leitza apustuari begira?**

Nik uste dut jendea animatuko dela apustura joaten. Jendeak beti galdetzen du zer moduz zauden, nola ikusten duzun, erdi brometan ea zure alde dirua jokatuko duen... Nik uste dut elkartuko dela jendea.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



17°  
9°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATSALDEA LAINOTUA  
BEROENA 15°  
HOTZENA 9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Inauterietako Argazki Lehiaketa



## DATORREN URTERA ARTE, AGURTUZ

Tolosako inauterietako Ostegun Gizenetik hilabete pasa da dagoeneko, eta atzean geratu dira. Eta Inauterietako Argazki Lehiaketari ere amaiera eman go diogu bihar, Hernialdeko Elketa Jatetxeko bi laguntzako otordua parte hartzaileen artean banatuz. Gaurko bi argazkiak Ibon Azpilikueta alegiarrak eta Izaskun Arandiak tolosarrak bidali dituzte hurrenez hurren. Lehenengoan Ero Etxe txarangaren kolore biziak ikus daitezke. Aldiz, bigarren argazkian, eskua da indarra hartzen duena. IBONAZ-PILIKUETA / IZASKUN ARANDIA

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

■ **Anoeta.** Jaietan egiten duten playbackean izena emateko epea zabaldu du udalak. Interesatuek hilaren 20a, asteazkena, baino lehen eman beharko dute izena, udaletxean, liburutegian edota Ander Odriozolaren dendan. Taldeekin erdiak baino gehiago herrikoak beharko dute izan.

■ **Areso.** Hilaren 8an, ostiralean, bukatuko da Aresoko Udalean egur loteak eskatzeko epea. Hiru aukera jarri ditu udalak eskaera egiteko: zutik tokian botatzea 30 eurotan, pista ondora ateratzea 65 euroren truke edo etxe ingurura eramatea 165 eurotan izango litzateke. Loteak, 5,5 tonakoak izanen dira eta aurten Utezar parajeko pago eta haritzekin osatuko dituzte.

■ **Belauntza.** Emakumeen Nazioarteko egunean afaria egingo dute. Izena ematea herriko tabernako arduradunari deituta egingo da, 616 82 37 07 telefono zenbakira deituz. Gaur da horretarako azken eguna.

■ **Irura.** Gaur, 19:00etan, Irurako festa batzordeak bilera egingo du datozen ekitaldiei begira: Korrika edota kirol astea. Batzarra,

udaletxeko bilera aretoan izango da.

■ **Berastegi.** Emakumeen arteko herriko kirolak egingo dituzte hilaren 8an, ostiralean. Gaur izango da izena emateko azken eguna, ohiko lekuetan.

■ **Bidegoian.** Hilaren 14ean eta 21ean, sukaldaritza ikastaroa egingo dute Olazal jatetxeko sukaldariarekin. Ostirala da izena emateko azken eguna, eta 10 euro ordaindu beharko da. Izena, 657 795 557 telefono zenbakira deituz eman behar da.

#### ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** *Salam. Beste kultura batzuei irekitako leihoa* erakusketa ikusgai dago, Aranburu jauzian.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauetako: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar Kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**

Egin HITZAren  
HARPIDEDUN

otsailaren 1etik  
martxoaren 31ra arte,  
ETA JASO

EKAIN  
sagardoa  
6 botilako  
kaxa bana



Harpidedun egiten diren  
guztien artean

Orduñako Aisia  
hotelean,  
bi pertsonarentzako  
asteburu  
baterako  
egonaldia  
ZOKATUKO  
DUGU

Harremanetarako:  
902 82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)



hitza